

## **HKEE-REN PRENTSA OHARRA, URDUÑAKO UDALAREN 2009-KO FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA.**

---

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak Urduñako Udalaren 2009ko ekitaldiari dagokion fiskalizazio txostena mamitu du. Txostena aho batez onetsi dute.

Kontu Orokorraren fiskalizazio txostenak -Udalaren, bere Erakunde Autonomoen eta Sozietate Publikoaren kontuak barne hartzen dituenak- legezketasunari buruzko alderdiak besarkatzen ditu aurrekontu, sarrera, langileria, diru-laguntza eta administrazioko kontratazioaren alorrean; baita kontuen aurkezpenarekin lotutako kontularitzako alderdiak ere.

Legezketasunaren atalean, HKEEk udal jarduerari buruzko iritzi orokorra eman eta indarreko araudia zuzentasunez bete dela adierazi du. Iritzi honi hainbat salbuespen egin zaizkio eta txostenean bertan daude jasoak.

Bada, kontratazioaren atalean HKEEk adierazi du Udalak ez duela behar bezala justifikatu Edateko uraren udal zerbitzua kudeatzeko kontratua, Zerbitzu publikoa kudeatzeko kontratu bihurtu izana, gehienera 25 urteko eperako. Hasierako kontratua 1988an esleitu zen eta 1993ko urrian amaitu zen.

Berebat, Udalak Bizkailur, SAUrekin -jabe bakartzat BFA duen sozietatea- 2005 eta 2006an gauzatutako hirigintzako bi hitzarmen obren kontratu publikoak dira, zuzenean lehiaketarik bideratu gabe esleitu direnak; horrek kontratuen arautegia urratzen du.

Gainera, administrazioko kontratazioa arautzen duten arauak urratu ditu zenbaitetan. Hona hemen adierazgarrienak: zerbitzuko bi kontratutan esleipen berria ez da lizitatu, publizitate eta lehiari meneratutako prozesu berrien bitartez; 2009an 2007an esleitutako kontratu batetik eratorritako gastua egikaritu da, aipatutako printzipioak gorde gabe; bi kontratutan xedea eta bolumen ekonomikoa desitxuratu dira, izan ere, azken exekuzioak esleipen prezioa % 41ean eta % 32an gainditu baitu.

Kontu Orokorrari dagokionez, Epaitegiak aldeko iritzia plazaratu du horien aurkezpen eta edukiari dagokionez; ordea, akatsa azaleratu du, besteak beste, kontabilitateari

egindako hainbat doiketen ondorioz, Diruzaintza Geldikina 98 mila euroan gehitu dutenak.

Erakunde autonomo eta sozietate publikoei dagokienez, legea betetzeari eta urteko kontuei buruzko iritzia aldekoa da, nahiz hainbat ez-betetze azpimarratu diren langileriaren eta kontratazioaren ataletan, txostenean jaso direnak.

Halaber, HKEEK barne kontrolari eta kudeaketa prozedurei buruzko hainbat irizpen mahairatu ditu aurrekontu, kontabilitate, langileria eta kontratazio arloetan.

Azkenik, finantza egoerari dagokionez, 2007-2009 aldian, Urduñako Udalak inbertsio ahalegin handia egin du eta hori finantzatu da, nagusiki, kapitalezko diru-laguntzekin, aurrezki garbiarekin -2007 eta 2008an gehitzen joan dena, baina murriztuz 2009an, itunpeko zergen sarrerek behera egin dutelako- eta neurri txikiagoan diruzaintza geldikinarekin. Gogoan izan behar da, berebat, zorpetze maila adierazgarria dela eta datozen 16 urteetan printzipalaren itzulketari eta maileguen interesen ordainketari egin beharko diola aurre. Horregatik guztiagatik, Udalak zerbitzuen kostuei eusteko ahalegina egin behar luke, sarrera arruntak egonkor daudela edo murrizten ari direla ikusita.